

Ebaluazio-txostena

Migrazioa edo lekualdatze behartua? Biztanle-mugimenduen arrazoiak eztabaidagai



Begirada berri bat Asilo-eskubideari - Proiektuaren ebaluazioa: Lekualdatze behartuak migrazio-mugimenduen barruan eta enpresa transnazionalen eraginarekin duen harremana - Kolonbiako kasua eredu baten adibide gisa- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatua.

Aurkibidea

<u>PROIEKTUAREN LABURPENA</u>	<u>3</u>
<u>EBALUAZIO-METODOLOGIA.....</u>	<u>5</u>
<u>ONDORIOAK.....</u>	<u>8</u>
<u>EBALUAZIO ARDATZA.....</u>	<u>12</u>

Proiektuaren laburpena

Proiektu honen bidez, CEAR-Euskadik, beste erakunde eta pertsona espezializatu batzuekin elkarlanean, Eskubide Ekonomikoak, Sozialak, Kulturalak eta Ingurumenekoak urratu zaizkielako lekualdatu behar izan duten pertsonen Giza Eskubideak babesten lagundu nahi izan du. Horri begira, EAEko Giza Eskubideen eragileek gaur egungo migrazio-mugimenduen barruan lekualdatze behartuak identifikatu ditzatela sustatzeko eta enpresa transnazionalen eraginarekin duen harremana aztertzeko xedea duen ekimen berri bat proposatu zuten, Kolonbiako kasua adibide gisa hartuta.

Ikerketa:

- **Lekualdatze behartuen birkontzeptualizazio baterantz aurrera eginez:** Proposamen bat lantzen ari gara kontzeptu zabal baten inguruan, eta horren arabera, lekualdatze behartuen jatorrian sartuko lirateke ingurumenaren degradazioa eta eskubide ekonomikoen eta sozialen bortxaketa larri, iraunkor eta sistematikoak, baita eskubide zibil eta politikoen bortxaketa ere. Ikuspegirekin elkarlanean, Giza Eskubideen gaineko Nazioarteko Zuzenbidearen baliabideei buruzko azterlan bat egin dugu, migrazioen analitika proposatzen den ikuspegia berrikusiz eta espainiar estatuko nahiz Kolonbiako adituekin elkarrizketa sakonak eginez.
 - AIERDI, Xabier eta CELIS, Raquel (CEAR-Euskadi). (Bilbo, 2015): *Migrazioa edo lekualdatze behartua? Biztanle-mugimenduen arrazoiak eztabaidagai*. Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Koadernoak. www.cear-euskadi.org webgunean eskuragarri
- **Lekualdatze behartuaren alorrean garapenerako proiektu handi batek dituen eraginei buruzko azterketa.** Alejandro Pulido ikerlari kolonbiarrak kasu baten azterketa burutu du El Quimboko (Huila, Magdalena ibaia, Kolonbia) zentral hidroelektrikoak arrantzaleen artean eta arrantzarekin loturiko beste lanbide batzuetan aritzen direnen artean dituen eraginak ezagutzeko, baita jasaten dituzten ondorioak eta erresistentzia-prozesuak ere. Eragindako pertsonekin, aktibistekin eta fenomeno horiek aztertzen ari diren beste erakunde eta aditu batzuekin elkarlanean, zenbait ondorio atera dituzte urtegiko presak behartu dituen lekualdatzei buruz eta inguru horretan izandako aldaketa sozio-demografiko garrantzitsuei buruz.
 - PULIDO, Alejo. *Magdalena ibaiaren murmurioak. Megaproiektuek eragiten dituzten lekualdatze behartuak*. CEAR-Euskadi. (Bilbo, 2014). www.cear-euskadi.org webgunean eskuragarri
- **Euskadin bizi diren kolonbiarren artean hauteman gabeko lekualdatze beharturik gertatu ote den ikertzea:** Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko pertsonak migratzera bultzarazi zituzten egoerak identifikatu eta definitu dira, hoiengoen oinarrian sumatzen diren lekualdatze behartuen kasuak agerian utziz. Ikuspegirekin elkarlanean, inkesta bat egin zaie Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko 400 pertsonari.
 - *Migrazio kolonbiarra Euskadin: Nahitakoa ala behartua?* Txosten osoa eta Laburpen Exekutiboa: www.cear-euskadi.org webgunean

Sozializazioa:

- **Jardunaldiak:** *Migrazioa edo lekualdatze behartua? Biztanle-mugimenduen arrazoiak eztabaidagai* (urriaren 28an eta 29an). Lehen saioan biztanle-

mugimenduen arrazoiak aztertu dira egindako ikerketen emaitzetatik abiatuta, garapenerako proiektu handiek Eskubide Ekonomikoen, Sozialen, Kulturalen eta Ingurumenekoen urraketan duten eragin berezia kontuan izanik. Bigarren saioa erronkei buruzkoa izan da, nazioarteko babesarekin loturiko esperientziak, multinazionalen jarduera ikuskatzeko eragin-kanpainak eta Deshazkundearen eta Ongi Bizitzearen aldeko proposamenak kontuan izanik.

- **Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean esku hartzea** jasotako informazioa ezagutzera emateko eta erantzukizunaren aldeko dei bat zabaltzeko, migrazio-fenomenoen inguruan dugun ikuspegia berrikusteari begira eta egun Euskadin desplazatuta edo errefuxiatuta dauden pertsonen nazioarteko babesa eskaintzeari begira; baina halaber, autonomia-erkidegoaren partetik, Munduaren Hegoaldeko beste herrialde batzuetan burutzen diren inbertsio eta lankidetzarako politikek Europako Giza Eskubideen estandar berberak ezin zorrotzago errespetatuko dituztela zaintzeko.
- **Prozesuaren ebaluazioa:** Garapenerako Hezkuntzaren dimentsio pedagogikoaren ikuspegitik ebaluatu da proiektua. Emaitzarik adierazgarrienak Txosten honetan jasotzen dira.

Ebaluazio-metodologia

Ebaluazio-prozesua: funtsezko uneak

HASIERAKO EKINBIDEAK

Lehenik eta behin proiektuaren adierazpenaren berrikuspen bat egin genuen informazio esanguratsua ateratzeko, eta horretarako kontuan hartu ziren proiektuaren logika, proposamena mugatzen duen testuingurua, horren justifikazioa, lanerako metodologia eta ebaluazioaren inguruan aurreikusitako galdera eta irizpideak.

Hurrengo urratsa ebaluazioaren helburu zehatza finkatzea izan zen, kontuan hartuta proiektuaren helburua eta hori gauzatzeko erabiliko zen Dimentsio Pedagogikoa.

PROZESUAREN DISEINUA

- Irizpideak eta analisirako kategoriak zehaztea (nondik nora ebaluatuko dugun).

a) Proiektuaren helburuak

Helburu Orokorra:

Eskubide Ekonomiko, Sozial, Kultura eta Ingurumen arlokoak urratu zaizkielako desplazatuta dauden pertsonen giza eskubideak defendatzea.

Helburu berezia:

EAEko Giza Eskubideen eragileek gaur egungo migrazio-mugimenduen barruan lekualdatze behartuak identifikatu ditzatela eta enpresa transnazionalen eraginarekin duten harremana aztertu dezatela sustatzea (Kolonbiako kasua adibide bezala hartuta).

b) Ebaluazioaren helburua

Erabilitako ikerketa-metodologiek utzi dizkiguten irakaspenak ezagutzea (kasuaren azterketa, galdeketa eta elkarrizketa sakonak), migrazioaren eta lekualdatze behartuaren artean zer alde dagoen argitzearren, ondorengoa kontuan hartuz:

- Garapenerako proiektu handiek lekualdatze behartuetan betetzen duten eginkizuna
- Xede-taldeari egokitzen zaizkion ala ez
- Arlo honetako beste prozesu batzuetarako metodologia-irakaspenak

Dimentsio Pedagogikoa:

CEAR-Euskadiren iritziz Garapenerako Hezkuntzaren Dimentsio Pedagogikoa osatzen duten elementuen artetik ondorengoak hartu dira kontuan:

- Proiektuak lan-ildo berriak identifikatzeko aukera ematen du
- Proposatutako metodoak eta tresnak egokiak dira proiektuaren xede-taldeentzat.
- Proiektuak baliabide edo lan-metodo berritzaileak erabiltzen ditu.
- Erabilitako metodoak ikerketan eta jarduera parte-hartzaileetan oinarrituta daude.
- Erabilitako metodoek eredu nagusiaren ikuspegi kritiko eta analitiko bat eskaintzen dute, eskubideen berdintasuna eta zuzentasuna sustatuz eta horien urraketak salatuz.
- Erabilitako metodoen arabera, pertsona dugu prozesuaren protagonista.

- Lanerako moduak eta metodoak ere proiektuaren helburu dira.
- Proiektuko eragile desberdinek elkarren artean dituzten mendekotasunak erakusten dituzte erabilitako metodoek.
- Ebaluazioaz gainera, irakaspenak berreskuratzeko mekanismo batzuk eskaintzen ditu proiektuak (baliabideak eta denborak).
- Proiektua eta horren jarduerak bideratzen dituzten pertsonak badute landu beharreko gaiari buruzko prestakuntza.
- Erakundeak barne-heziketarako prozesuak sustatzen ditu, bai proiektuan erabilitako metodologiengatik inguruan eta bai horien edukien inguruan ere.
- Proiektua argi eta garbi zehaztutako publiko bati zuzendua dago.
- Proiektuaren xede-taldearekin zuzenean lotutako erakunde batek eraginkorki hartzen du parte.

Zehar-lerroak:

- *Generoa*: Konpetentziak eskuratzeari egiten dio erreferentzia, errealitatea generoaren ikuspegitik aztertzearen, baita ezarritako rola apurtzeari ere.
- *Hego Ikuspegia*: Hegoaldeari buruzko estereotipoak apurtzeari eta Hegoaldean landutako oinarri metodologikoak barneratzeari egiten dio erreferentzia.
- *Giza Eskubideak*: Giza Eskubideak sustatzearekin eta defendatzearekin loturiko ezagupenak eta konpetentziak eskuratzeko laguntzeari egiten dio erreferentzia.
- **Ebaluazio-ardatza diseinatu da (Ikus Ebaluazio Ardatza):**
 - Ebaluatu beharreko gai nagusiak definitu dira:
 1. Proiektuak irakaspen metodologiko batzuk eskaintzen ditu.
 2. Irakaspen metodologiko horiek etorkizunean aplikatu daitezke.
 3. Ikerketak egokiak dira publiko hartzailearentzat.
 - Hipotesiak eta adierazleak identifikatzen dira:

Definitu egin dira hipotesiak (arazoaren soluzio posibleak, gertaerek gero egiaztatu edo gezurtatu ditzaten proposatzen direnak), baita adierazle kualitatiboak ere (hipotesien betetze-maila egiaztatze xedea duten neurri bereziak, berariazkoak eta objektiboki egiaztagarriak).
 - Prozesuan parte hartuko duten subjektuak identifikatzen dira eta erabili beharreko tresnak diseinatzen dira (elkarrizketa sakonak eta eztabaida-taldea).

Hipotesiek edo adierazleek aipatzen dituzten kolektiboetako kideak dira, edo horien betetze-maila zein den ezagutzen lagundu diezaguketanak. Kasu honetan, xede-taldeko pertsona azpimarragarriak edota proiektuan inplikaturiko pertsonak edo sarean lan egin dutenak dira.

LANDA-LANA

- Elkarrizketa sakonak:
 - Raquel Celis (CEAR-Euskadi): proiektuaren koordinatzailea
 - Alejandro Pulido (Ikerlaria): Kolonbiako ikerketaren arduraduna
 - Xabier Aierdi (Ikuspegi): Euskadiko ikerketa kualitatiboaren taldea

- Eztabaida-taldea: xede-taldeko pertsona adierazgarriak eta sarean lan egin duten pertsonak (horiek guztiek *'Migrazioa edo lekualdatze behartua?'* Jardunaldietan parte hartu dute):
 - Inés Echave-Susaeta, CEAR-Euskadiko boluntarioa, Deustuko Unibertsitateari lotua
 - Liliana Zambrano, Kolonbiako politologoa eta nazioarteko aholkularia
 - Eneko Calle, Paz con Dignidad eta Kolektiba Colombia erakundeetako kidea
 - Joana Abrisketa, Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea Deustuko Unibertsitatean
 - Juan Hernández, EHUko irakaslea eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko kidea.

Ondorioak

Metodologia-esparruari buruz

Proiektua proposatu dugun eta gauzatu dugun moduari egiten dio erreferentzia, eta horren oinarri diren ikuspegiak eta suposamendu nahiz printzipioak biltzen ditu.

Ikerketetan inplikatu diren pertsona guztiak bat datoz metodologia-esparru partekatu bat baliatu dutela, nahiz formalki idatzita ez egon.

- Testuinguru horren parte diren printzipioen artean hauek ditugu:
 - Giza duintasunarekiko errespetua
 - Errealitatea ikusgarri egitea
 - Errealitatea ikuspegi zientifiko batetik aztertzea
 - Aintzat hartu gabeko pertsonen ahotza eman nahi izatea.
 - Kolonbiatik Europara behartutako lekualdatzea egitearen gaineko begirada eta enpresa transnaziionalen jarduerarekin duen lotura.
 - Giza Eskubideen gaineko ikuspegia, Eskubide Ekonomikoei, Sozialei, Kulturei eta Ingurumenekoei Eskubide Zibil eta Politikoen maila bera emanez.
 - Asilo Eskubideari buruzko ikuspegi bat, pertsonen segurtasunerako eskubideaz gain duintasunerako eskubidea ere kontuan hartuko duena.
 - Kolonbian prozesu sozial bat garatzen laguntzea (kasuaren azterketaren inguruan han egiten ari zirena positiboki indartuko duena)
 - Inplikaturako pertsonen segurtasuna zaintzea
- Printzipio hauek eremu informaletan ezagutarazi dira
- Oso eztabaida biziak sortu dira
- Malgutasuna eta eraikuntza kolektiboa ere izan dira

Metodologia-esparru hori zehazteko eta gizartera zabaltzeko erabilitako modua **eztabaida informalen** bidezkoa izan da, eta proiektuaren koordinatzaileak sustatu ditu eztabaida horiek, baita ikerketa desberdinen arteko lotura bultzatu ere.

Kolonbian egindako ikerketek eta EAEn burutu direnek, elkarren osagarriak izan arren, elkarrekin harremanik ez edukitzeak erraztu egin du metodologia-esparru hori errespetatzea.

Metodologia-esparru hori idatzita eta finkatuta ez egoteak erraztu egin du eraikuntza kolektiboa, eta horri esker, ikerlariak **ikerketaren helburuarekiko kontzientzia eta konpromiso handiagoa** bereganatu ahal izan dute.

Hala eta guztiz ere, etorkizunari begira, lehen unetik bertatik metodologia-esparrua idatzita eta adostuta edukitzea komeniko litzateke, horrek erraztu egingo lukeelako metodoa proposatutako printzipioekin koherentea izatea eta ekidin egingo litzatekeelako tresnen lanketan inkoherentziak gertatzeko arriskua.

Metodologia-esparrua elkarrekin sortu arren, lanerako metodo eta tresna oso desberdinei jarraiki burutu dira ikerketak, eta horien artean izan den lotura, nagusiki, bata bestearen

osagarri izatea izan da, bata bestearekin erlazionatua baino gehiago. Era horretan, hauxe ikus dezakegu:

- Ikuspegik egin duen ikerketaren helburua “errealitatea azaleratzea” izan da. Ikerketa horretan egindako lanari esker, esku-hartze sozialera hurbildu ahal izan da Ikuspegi, CEAR-Euskadiren bitartez. Ikuspegik uste duenez, eremu akademikoa eta antolamendu nahiz gizarte arloko eremua erlazionatuta egoteko lehen urratsa da. Eremu akademikoko beste pertsona batzuek uste dute, halere, **ezinezkoa dela bi sektore horien artean erlazio handiago bat gauzatzea**, Unibertsitateak berez dituen dinamika endogamikoaren ondorioz. Aliantzak pertsona jakinekin bakarrik lortu daitezkeela uste dute.
- Kolonbian egindako ikerketa horren helburua biktimei ahotsa ematea zen, eta gatazkan baztertu den dauden taldeak agerraraztea. Ikerketa-taldearen eta azterketaren kasuan inplikaturik dauden mugimendu sozialen artean erlazio handi baten beharra izan du ikuspegi horrek. **Erritmoak eta teknikak inguru horretan lehendik zeuden prozesuen arabera egokituz** landu dira. Alejo Pulido ikerlari kolonbiarraren iritziz, lan honek, gainera, tokiko prozesuaren helburuetako bat erdiesten lagundu du, hots, megaproiektuei eta lekualdatze behartuei buruzko Entzunaldi Publikoa egitea Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrean.

Bi ikerketa horiek elkarren osagarri eta koherenteak izan dira, bi taldeek **batak bestearen jakintzak errespetatu dituztelako eta beren jakintza propioak erlatibizatu zituztelako**. Eztabaida hori CEAR-Euskadiren bitartez gauzatu da, talde bakoitzarekin koordinatu baita eta berak gurutzatu eta helarazi baititu eztabaidak. Bi taldeek ez dute elkarrekin lan egiteko eremurik landu Gizarteratze Jardunaldiak egin diren arte, eta topaketarako eta eztabaidarako eremu gisa aipatu dituzte horiek (bai metodologia aldetik eta bai gai aldetik ere).

Zeharkako metodologiei buruz

Bi zehar-lerroei buruzko ondorio bereziki aipagarriak erdietsi dira: generoa; xede-taldeak eta El Quimboko urtegi presak eragindako pertsonen parte hartzea.

- **Genero-ikuspegiari buruz:**

CEAR-Euskadik ikerketa-talde desberdinei ezarritako baldintza izan da Ikerketetan generoaren ikuspegia barneratzea. Ikuspegi hori eraginkor bihurtzeko topatu dituzten zailtasunak handiak izan dira.

Gai honen inguruko iritzien heterogeneotasunean islatzen da egoera hori:

1. Koordinatzaileak uste du generoaren ikuspegia kontuan hartu zutela proiektuaren diseinuan, elkarriketatuko ziren pertsonak hautatu zituztenean (bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki ere); elkarriketak diseinatu zirenean; galdetegia diseinatu zenean; tokiko errealitatea aztertzeko elementuak proposatu zirenean, eta abar. Baina uste du ikuspegi feminista faltatu izan dela erabilitako metodologietan.
2. Kolonbiako ikerlariaren iritziz, tokiko errealitatearekin zerikusia duten zailtasun operatibo batzuk izan dira eta horiek konpontzen ahaleginu dira. Bere iritziz, liderrek egindako ekarpenek agerrarazi egin dituzte jasandako ondorio berezi horiek.
3. Azkenik, Ikuspegik uste du aintzat hartua izan dela generoaren ikuspegia, kontuan hartu delako bai elkarriketa sakonetan eta bai galdeketa ere. Ikuspegiaren arabera, lan kuantitatiboan, inkesta hori lagin proportzional bat erabiliz eginga izatea aski izan beharko genuke errealitate hori aztertu ahal izateko. Halaber, uste du emakumeen ahalduntzea aztertu ahal izateko, beste metodologia kualitatiboago batzuk behar direla.

Ikuspegi horietatik funtsezko bi ideia atera ditzakegu:

- Aldez aurretik ados jarri behar dute ikerketa-taldeko kide bakoitzaren iritziz generoaren ikuspegitik ikertu beharrekoaren inguruan.
- Metodo bereziak taxutu behar dira eta metodologia feministetan lan-esperezentzia berezia duten pertsonen aholkularitza erdietsi.

- **Partaidetzaren ikuspegiari buruz:**

Partaidetzari dagokionez, bi eratako eragileak aipa ditzakegu: proiektuaren xedetaldea eta El Quimboko urtegiko presak eragindako pertsonak. Azpimarratu behar da eragile horietatik batek ere ez zuela parte hartu proiektua identifikatzeko orduan. Prozesu hori CEAR-Euskadiren eta aurreko proiektuetan inplikaturako eragileen artean burutu zuten; izan ere, eragile horiek xede-taldeko partaide dira, baina ez zati adierazgarri.

El Quimbo urtegiko presak eragindako pertsonen parte hartzea oso garrantzitsua dela jo da. Ikerketa eta tokian tokiko mugimendu sozialak bat etor daitezela ahalegindu dira. Tierra Digna izeneko erakundearekin izandako lankidetzazpimarratu nahi da, adostasun handia lortu baita horrekin, bai planteamendu metodologikoetan eta bai ikerketaren ikuspegi politikoan ere. Ikerketa-teknika parte-hartzaileak erabili dira, prozesu luze eta konfiantzazko bat bultzatu da jendearekin, eta horrek bere fruituak eman ditu harreman horizontal bat ezartzeko asmo horretan, eta halaber, ahalegin handi bat egin da produktu hori urtegiko presak eragindako jendearentzat baliagarri izan dadin.

Geure buruari galdetu beharko genioke zergatik gauzatzen diren horrelako prozesu parte-hartzaileak Kolonbian eta ez Euskadin.

Egokitzapen metodologikoari buruz

Azpimarratu da ikerketa horiek zenbait elementu eskaintzen dizkigutela migrazioaren eta lekualdatze behartuaren arteko aldearen inguruan hausnartzeko. Kolonbian egindako ikerketak eztabaida sustatu du erakundeen eta mugimendu sozialen baitan, eta lagungarria da kasu eredugarri bat erabiltzea garapen-proiektu handien eta lekualdatze behartu horien arteko erlazioa ikertu ahal izateko.

Metodologia-esparruak eztabaida hau publiko hartzailearengana hurbiltzea erraztu ala zaildu egin duen aztertzen badugu, ikusiko dugu, hirugarren sektoreko eta unibertsitateko eragileen ustez, Jardunaldi hauek oso baliagarriak izan direla. Nabarmendu nahi dute jardunaldi hauen helburua ez zela ondorio batzuk ateratzea, baizik eta eztabaida eta gogoeta piztea. Lan egiteko modu honek oreka egokia erdietsi du egoeren aurkezpenaren eta eztabaiden lanketaren artean. Migrazioaren eta lekualdatze behartuaren arteko muga inguruko gogoeta ezagutzen ez zuten pertsonentzat, Jardunaldi honek sentsibilizaziorako tresna gisa balio izan du, eta gai honetan inplikaturako pertsonen, berriz, eztabaida mamitsuetan sakontzeko aukera eskaini die.

‘Magdalena ibaiaren murmurioak’ lanaren argitalpenari dagokionez, baliagarritzat jotzen da gai horrekin trebatuta ez daudenentzat. Oso lan dibulgatiboa da, hurbila eta sentimenduz idatzia, argitalpen akademiko zorrotzegien estandarretatik urruntzen dena.

Hala eta guztiz ere, gogoeta horiek guztiak ahalik eta jende kopururik zabalenari helarazteko erronka betetzeko dugu oraindik. Interesgarritzat jotzen da gogoeta horiek zenbait kolektibori ezagutaraztea, eta alde horretatik, bi eremu nabarmentzen dira: akademikoa, eta arlo honetan, txosten bat egitea proposatzen da, eztabaida horiek berak aurkezteko, baina Akademiaren ohiko jardunbideen arabera; eta bestetik, pertsona desplazatuaren kolektiboa, nahiz eta ez dagoen horretara iristeko moduari buruzko adostasun zehatzik.

Garrantzitsua da kontuan izatea ebaluazio hori egin zenean, oraindik ez zela argitaratu *'Migrazioa edo Lekualdatze Behartua: biztanle-mugimenduen arrazoiak eztabaidagai'* entsegua, Deustuko Unibertsitatearen Giza Eskubideen Koadernoak bildumaren barruan argitaratzeko erabakiak atzeratu egin zuelako horren argitalpena. Gainera, nolabaiteko nahasmena dago ikerketa-lan desberdinetan sortutako produktu guztien inguruan.

Eztabaida sortzen duen beste gai bat, hain zuzen ere, gizarte-erakundeek nazioko nahiz nazioarteko legerian eragiteko duten gaitasuna da. Positibotzat jotzen da CEAR-Euskadik erakutsitako ausardia, mahai gainean jarri duelako Asilo Eskubidea ulertzeko modu klasikoa zalantzan jartzen duen eztabaida bat. Garrantzizko ikusten da Zuzenbidea gizarte zibiletik eraikitzea, baina zehaztu nahi da, bestetik, lan hori epe luzera begira dela eta erakunde erantzuleak ez direla gizarte zibilarekin batera lanean ari.

Lanaren barne-antolamenduari buruz

Metodologiari dagokionez, taldearen barruan proiektuko koordinatzaileak parte hartu izanak eta gainerako lankideek apenas parte hartu izanak zaildu egiten du irakaspenak ezagutaraztea, eta ahalegin edo plan gehigarri bat egitea eskatzen du.

Hasieran migrazioaren eta lekualdatze behartuaren arteko mugaren inguruko zenbait barne-eztabaida besteekin partekatu ziren arren, denbora aurrera joan ahala ez zaio asmo horri eutsi. Nabarmentzekoa da erakundeko zuzendaria proiektuan zehar inplikatu izana, horrek erraztu egin baitezake CEAR-Euskadin jarrera politiko berriak hartzea.

Ebaluazio Ardatza

Proiektuaren Helburu Berezia

EAEko Giza Eskubideen eragileek gaur egungo migrazio-mugimenduen barruan lekualdatze behartuak identifikatu ditzatela eta enpresa transnazionalen eraginarekin duten harremana aztertu dezatela sustatzea (Kolonbiako kasua adibide bezala hartuta).

Ebaluazioaren helburua

Erabilitako ikerketa-metodologiak utzi dizkiguten irakaspenak ezagutzea (kasuaren azterketa, galdeketak eta elkarrizketa sakonak), migrazioaren eta lekualdatze behartuaren artean zer alde dagoen argitzearen.

- Kontuan hartuz garapenerako proiektu handiek lekualdatze behartuetan betetzen ari diren eginkizuna
- Kontuan hartuz xede-taldeari egokitu zaizkion ala ez
- Kontuan hartuz arlo honetako beste prozesu batzuetarako metodologia-irakaspenak

Gaia	Hipotesia	Adierazlea
<p>Proiektuak irakaspen metodologiko batzuk eskaini ditu</p>	<p>Erabilitako metodologiak ikerketetan inplikaturako eragileen arteko hartu-emanak sustatzen ditu</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikerketan inplikaturako eragileek metodologia-esparrua partekatzen dute 2. Erabilitako metodologiak erraztu egin ditu ikerketan inplikaturako eragileen arteko hartu-emanak 3. Metodologiak erraztu egin ditu topaketarako eremuak eta trukeak talde, sare eta pertsonekin 4. Metodologiak hirugarren sektorearen eta eremu akademikoaren arteko sinergiak sustatu ditu
	<p>Metodologia-esparrua kontuan izanik garatu dira ikerketak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 5. Proiektuaren helburuetako bat, halaber, erabilitako metodologia da. 6. Xede-taldeko pertsonak ikerketan identifikazioan parte hartu dute 7. Erabilitako tresnak koherenteak dira metodologia-esparruarekin

		<p>8. Erabilitako metodoen arabera, pertsona dugu prozesuaren protagonista.</p> <p>9. Erabilitako tresnek kontuan hartzen dute errealitateak modu desberdinean eragiten diela gizonei eta emakumeei</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Aldagai hau kontuan izanik tresnak diseinatzeko eta aplikatzeko gaitasuna. ○ Aldagai hau kontuan izanik elkarrizketatutako pertsonak hautatzea (Espainia eta Kolonia) <p>10. Erabilitako tresnek konfidentziasuna ahalbidetzen dute eta pertsonen segurtasuna kontuan hartzen dute.</p>
	<p>Metodologia honek migrazioaren eta lekualdatze behartuaren arteko desberdintasuna argitzen laguntzen du</p>	<p>11. Erabilitako metodologiak erraztu egiten du migrazioari buruz eta bere arrazoi eta ondorioei buruz gogoeta kritikoa egiteko konpetentziak garatzea.</p> <p>12. Erabilitako metodologiak lagundu egiten du lekualdatze behartuari buruzko ikuspegi berri bat edukitzen.</p> <p>13. Erabilitako metodologiak lagundu egiten du garapen-proiektu handiek lekualdatzeetan betetzen duten eginkizuna ulertzen.</p> <p>14. Erabilitako metodologiak lagundu egiten du rolak apurtzen, emakumeak subjektu aktibo gisa aurkeztuz eta beren ekarpenak agerraraziz.</p> <p>15. Erabilitako metodologiak lagundu egiten du Hego ikuskerarekin landutako oinarri pedagogikoak barneratzen.</p>

<p>Irakaspen metodologikoak etorkizunean aplikatu daitezke</p>	<p>Irakaspenak berreskuratu izanaren ondorioz jarduera batzuk planifikatu dira</p>	<p>16. Proiektuak lan-ildo berriak identifikatzeko aukera ematen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Zein? ○ Lankidetzan oinarrituak daude? ○ Heziketa eta gizarte-jarduerak partekatzen dituzte? <p>17. Erakundeak barne-heziketarako prozesuak sustatzen ditu, bai proiektuan erabilitako metodologiengatik inguruan eta bai horien edukien inguruan ere.</p> <p>18. Sistematizazioaren bidez, ebaluazioaren bidez edo beste eragile inplikatu batzuen jardueraren bidez sortzen diren irakaspenak ezagutarazteko eremuak sortzea aurreikusten da.</p> <p>19. Ikerketei esker arlo honetako beste prozesu batzuetarako irakaspen metodologikoak geureganatu ahal izan ditugu.</p>
<p>Ikerketak egokiak dira publiko hartzailearentzat</p>	<p>Proiektua ongi zehaztutako publiko bati zuzendua dago</p>	<p>20. Ikerketetan inplikaturako eragile guztiek garbi dute eta ados daude zein den xede-taldea</p> <p>21. Planteaturako metodologia egokia da proiektuaren xede-taldearentzat</p> <p>22. Erabilitako tresnak egokiak dira xede-taldearentzat</p> <p>23. Metodologian kontuan hartu da Hegoaldeko erakundeek ikerketari eskaini dioten ekarpena (Hegoaldeko Ikuspegia)</p>